



Izaki bizidun guztiok natur baliabideen menpe gaude eta, ondorioz aztarna ekologikoa sortzen dugu. Gaur egun, energiaren kontsumoa handitzen ari da, petrolio erreserbak agortuz doaz, eta horrekin batera, energia-krisia, airearen kutsadura eta energia-baliabideak kontrolatzeko gatazkak etorri dira.

Energia sistema jasangarria izango bada, honako hiru alderdi hauek izan behar ditu oinarri:

- ⇒ Energia kontsumo txikiagoa gure eguneroko bizitzaren alderdi guztietan.
- ⇒ Energia eranginkortasuna.
- ⇒ Energia berriztagarrien erabileraren aldeko apustua.

Jarduera honen helburua da Azpeitiko egungo kontsumo energetikoa ezagutu, aztertu, eta hobekuntza neurriak proposatzea. Horretarako DBH-2. zikloko ikasleek talde txikitik antolatuta ondorengo puntuak jorratuko dituzte:

1. UDALERRIKO ENERGIA KONTSUMOAREN AZTERKETA

Horretarako, ondorengo taulan azaltzen diren datuetan oinarrituz, Azpeitiko kontsumoaren banaketari buruzko grafika borobila (tarta) osatuko duzue, atal bakoitzari dagokion ehunekoa (porzentajea) kalkulatu.

ENERGIAREN KONTSUMOA UDAL-ERAIKINETAN (2012 URTEA)	ARGINDARRA		GAS NATURALA	
	GUZTIRA KWH	GUZTIRA EURO	GUZTIRA KWH	GUZTIRA EURO
ARGIZTAPEN PUBLIKOA	2.029.305	285.998,34		
UDAL-ERAIKINAK	705.033	142.067,36	746.414	50.667,69
FUTBOL-ZELAIK	46.293	11.508,25	99.972	7.296,31
FRONTOIAK	62.838	18.315,45	152.384	35.932,62
SUHILTZAILAK	10.098	2.557,91		
IKASTETXEAK	206.662	42.637,75	322.769	21.713,30
IGERILEKUA	508.563	84.869,50	1.728.466	107.404,50
KIROLDEGIA	93.148	20.466,61		
BESTEAK	16.765	4.245,85		
GUZTIRA	3.678.704	612.683	2.727.236	201.301,12

Adieraz ezazue zuentzat zein den daturik deigarriena, erantzuna arrazoituz.

AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA



2. AZPEITIKO UDALERRIAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZ SORTZEN DEN ENERGIAREN AZTERKETA

Azpeitian, 2011 urtean energia berriztagarrien ekoizpena 4.947,00 kWh-koa izan zen. Kontuan izanda Azpeitiko 2011 urteko argindar kontsumoa 3.632.375 kWh-koa izan zela, energia berriztagarrien ekoizpenak zer aurrezpen suposatzen du kontsumo energetiko osoan?

Energia berriztagarriekin lortutako aurrezpena

3. ZER IRUDITZEN ZAIZKIZUE ENERGIA BERRIZTAGARRIEKIN LORTUTAKO EMAITZAK?

4. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ERABILEREN INBENTARIOA

Atal hau osatzeko ikasleek Azpeitian martxan dauden energia berriztagarrien erabileren inbentarioa egingo duzue honako koadroa betez. Horretarako talde txikitan antolatuta herrian behaketa lana egingo duzue.

ENERGIA BERRIZTAGARRI MOTA	KOKAPENA
EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK	
EGUZKI PLAKA TERMIKOAK	
MINIHIDRAULIKOA	
EOLIKOA	
BIOMASA	
GEOTERMIKOA	

AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA



5. GEHIEN GARATUTAKO ENERGIA ITURRI BERRIZTAGARRIA

Jasotako informazioaren arabera, zein da Azpeitian gehien garatuta dagoen energia iturri berriztagarria?

6. ENERGIA ESPARRUKO JARDUNBIDE EGOKIAK

Euskal Autonomi Erkidegoan, zein Espainiako beste herrialde batzuetan, udalek urratsak ematen ari dira energia modu eraginkorragoan erabili eta energia berriztagarrien aldeko apustuaren bidean. Udalsarea zieko web orrialdean jasotzen dira Energia esparruan burutzen ari diren hainbat [Jardunbide Egoki](#).

7. BESTE HERRIETAKO ESPERIENTZIAK

Ondorengo koadroan bildu itzazue beste herri batzuetan energia aurrezteko neurriak edota energia berriztagarriak sustatzeko martxan ipinitako esperientziak.

UDALA	EKIMENA



Ilido beretik, Azpeitiko udalak ere energiaren aurrezpena sustatzeko hartu ditu neurriak azken urteotan, besteak beste, ondorengoak:

⇒ Azpeitiko udalerriko argiztapen publikoa 51 koadrotan antolatuta dago. Horietatik 40tan posible da argi-fluxua erregulatzea. Sistema honi esker, 2012an argiztapen publikoan 978,115 KWH aurreztu ziren, guztiaren % 32.50a.

⇒ Argi puntuen potentziaren murrizketa: argi asko dagoen tokietan, lanparak eta ekipoak, edota luminaria osoak kontsumo txikikoez ordezkatu dira. Neurri hauei esker, 2012an, 29KWH eta 17.574€ aurreztu ziren.



8. BALORA ITZAZUE AZPEITIKO UDALAK ORAIN ARTE HARTUTAKO NEURRIAK

AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA

9. EMAITZAK LABURBILTZEN

Egindako lanean oinarrituta, jaso itzazue ateratako ONDORIOAK eta luzatu Azpeitiko udalari PROPOSAMENAK energiaren kudeaketa hobetzeko, eta ondorioz, Azpeitiko aztarna ekologikoa gutxitzeko.

ONDORIOAK	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Material lagungarria:

- ⇒ <http://www.ihobe.net/BuenasPracticas/Listado.aspx?ldMenu=2d012435-6270-4197-a059-374276974174>
- ⇒ <http://www.udalsarea21.net/BuenasPracticas/Listado.aspx?ldMenu=381395ad-9baa-4408-809e-a73e0a2ec092>
- ⇒ <http://www.eve.es/Aula-didactica/Consejos-para-ahorrar-energia.aspx>
- ⇒ http://www.stopcozeuskadi.com/Pags/AP/AP_Paginas/Index.asp?cod=BCB1C86B-7690-4E79-B605-5E37EB909F3A&Reg=4E656F5E-ACA1-4302-9A3D-266D7582D405
- ⇒ http://www.donostia.org/info/ciudadano/ma_areas.nsf/vowebContenidosId/NT00000A5E?OpenDocument&idioma=eus&id=A501610418492&cat=Energía a&subcat=Marco jurídico y actuaciones del Ayuntamiento&doc=D